



## Urrezko Aizkorak ihes egin dio Rekondori

**LEITZA** ▶ Lehen 5 probetan irabazi ondoren, azken lanean galdu zuten finala leitzarrak eta Eratsunek

**HASERREA** ▶ «Txapela hain gertu izanda ez da batere xamurra galtzea», dio aizkolariak ▶ 7



**LEITZA** ▶

**Amaiursarea ekimenaren aurkezpena egin dute zineman**

Leitzaldean ezker abertzalearen borroka azpimarratu dute ▶ 7

**orain**  
ezker abertzalea  
Fernando Barrena, ekimenaren  
une batean. N. LIZARTZA



**European «gustura» lehen moto birarekin**

**IBARRA** ▶ Langostino Moto Kultur Elkarteak 2007ko lehen bira egin zuten herenegun Lekunberrira; guztira 20 lagun bildu ziren ▶ 6

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶

**Danena-Olaederrako  
16 urte azpikoak  
laugarren Espainiakoan**

«Espero baino postu okerragoa» izan zuten; 18 urte azpikoak, bigarren ▶ 4

**TOLOSA** ▶

**Herriko ikasleak  
nagusi Eskolarteko  
Xake Txapelketan**

Azken saioak igande honetan jokatu dituzte Kultur Etxean ▶ 3

**LEITZA** ▶

**Bengoetxea  
finaletik  
gero eta  
urrunago**

Beste bi partidak irabazi behar ditu ▶ 7

IRURA ▶ KIROLAK

# Xareak badu etorkizuna

Xarea, Irurako parrokoaren ilobak ekarri zuen 1919. urte inguruan Argentinatik; Beheralditxo izan badu ere, gogor ari dira lanean Ametsa elkarteko kideak

ENERITZ MAIZ

Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoa gertu izan arren, bidaia luze baten ostean iritsi zen xarea Irurara. 1919-1920 urte artean Argentinatik bueltan hain zuzen ere. Urte horietan, Aramako Don Jose Jauregi parroko pilotazalea zegoen Irurako elizan. Argentinan zuen iloba etorri zitzaion bisitan Irurara eta hango euskaldunek eskupilota ez den beste modalitate bat zutela kontatu zion. Xarea zen. Iparraletik joandako etorkinek eman zuten Argentinara eta Don Jose Jauregiren ilobaren bitartez iritsi zen Irurara. Bien artean egin zituzten xareak eta bertako haurrei jokatzeko erakutsi zieten.

Jokalari aldetik urte oparoak izan dira eta maila ona erakutsi izan dute. Baina azken urteak ez dira oso onak izan haur gutxi ibili baita xare eskolan. Bestetik, Gipuzkoa osoan beste xare eskolarik ez egoteak ez du batere laguntzen eta jokatzen zituzten partiduko guztiak elkarren aurkakoak izaten ziren.

Urte batzuk pasa ostean, ikasturte honetan Iparraldekoekin batera txapelketa jokatzea lortu dute. Partiduak iparraldean jokatzeaz gain, Iruran ere izan dituzte bertakoek, denen gozamenarako. Hauxe zen beraiek nahi zutena, Iruran ere partiduak jokatzea. Gaztetxo



Haurrak entrenamendu saio batean, Irurako trinketearen. ENERITZ MAIZ

hauek inoiz iparraldekoen aurka jokatu gabe egon arren, entrenatzaileak oso gustura dauke erakutsi duten mailarekin. Bestetik, orain artean, ordubeteko entrenamendua egin eta ez ziren gehiago azaltzen trinketetik. Aldiz, txapelketa dela eta «gogo handiagoarekin entrenatzen dutela konturatu gara eta asteko bi orduz gain, beraien kabuz ere etortzen dira», gaineratu du Aitor Artolak.

Irurako Ametsa elkarteko kideak, xarea aurrera ateratzeko gogoz ari dira lanean. Etorkizu-

nean ere seguru izango direla xare jokalaria, haurrak ez dira faltako behintzat.

## Xareaz jakin beharrekoak

Xareak badu teknika bat ikasi beharrezkoa eta hau Aitor Artolak azaldu du: «Gauza askotan bezala, haurrak direnean askoz ere azkarrago ikasten dute; batzuk nerabezaroa pasa ostean hasi izan dira, eta zaila egin izan zaien eskumuturraren mugimendua behar bezala ikastea. Ondorioz, utzi egin izan dute». Xare jokoan ezin-

bestekoa da jokalaria esku-muturra. Jokalaria, atzerako mugimendua egingo du eskumuturrarekin pilotari sarean sartzen laguntzeko. Eta ia neurtu ezin den une batez, eutsi egingo dio pilotari sarean eta eskumuturrari aurrera eraginez bota egingo du berriro ere frontisera. Hau da, hain zuzen, xareak duen gauzarik garrantzitsua.

Xare partiduak berrogei tantora izaten dira eta beti bi bikote dira elkarren aurka aritzen direnak. Bikote bakoitza aurrerari eta atzelari batez dago osa-

## Trinketearen berezitasuna

Ipar Euskal Herrian non-nahi aurki baditzaiegu ere trinketeak, hegoaldean oso gutxi dira. Horietako bat eskualdean dugu, Iruran.

Hiru berezitasun dauzka ohiko pilotalekuarekin alderatuta: lau paretez itxia izateaz gain, teilatutxo eta frailea ditu. Teilatutxo trinketeak ezker paretaren behe aldean duen eraikina da eta sare du erdialdean eta hau xarearen gakoetako bat da. Harmailetatik aparte, ikusleek, teilatutxo honen barrutik ere ikus ditzakete xare partiduak. Ohiko pilotalekuetako txokoak 90 graduak izaten dira; aldiz, trinketearen frontisak eta eskuin paretak bat egiten duen txokoa oso berezia da, 135 gradu izaten baititu. Honi frailea deitzen zaio. ◀

tua eta nahitaezkoa da guztiak kaskoa jantzita izatea. Pilotak, larruzkoak izaten dira beti, baina esku pilotan erabiltzen dituztenak baino arinagoak dira.

Tantoei dagokienez, xarearen ezaugarrietako bat azaldu du Aitor Artolak: «Trinketeak duen teilatutxoak, zati batean sare du eta tanto egin nahi bada, lehenik, frontisera bidali behar duzu pilota, ondoren lurrean bota egin eta sarean jo behar du. Aldiz, frontisetik zuzenean pilotak sarean jotzen badu falta izaten da. Bestetik, pilotak frailean jotzen badu, ustekabeko norabidea hartzen du.

AITOR ARTOLA ▶ AMETSA ELKARTEKO ENTRENATZAILEA

## «Uste baino maila hobea erakutsi dute»

Irurako gazte eta haurrei xare klaseak ematen ari dira beste urte batez, Ametsa elkarteko Joxi Lopetegui, Aitor Artola, Juantxo Larrarte eta Andoni Lizaso. Aitor Artola entrenatzailearekin izan gara Irurako trinketearen.

### Hasteko, nolatan hasi zinen xarean?

Betidanik izan da xarea Iruran. Guk txikitatik ezagutu dugu eta beti ibiltzen ginen elizako frontoian. Xareak Jexux Mari Arsuagak egiten zizkigun eta Mikel Uzkuadunek erakutsi zigun xarean jolasten. 1987an trinketea egin zuten eta orduz geroztik bertan ibiltzen gara.

### Eta zer moduz entrenatzaile bezala haurrekin?

Duela hamar urte hasi nintzen laguntzen eta entrenatzen baina ardua handiak hartzea ez zait gustatzen. Gustura baina luze egiten da eta une batzuetan pazientzia handia behar da. Batzuk ardua handiak hartu izan dituzte, baina urte batzuen ostean nazkatu eta utzi egin izan dute.

### Nola banatzen dituzte entrenamenduak?

Ikasturte honetan hasi gara pixka bat aldatzen. Lehen haur bakoitzak astean ordu bat izaten zuen eta orain bi ordu jarri dizkiegu. Asteazken eta ostiraletan izaten dira eta etortzen den edo ez bakoitzak ikusten du baina bi orduz aritzeko aukera dute. Beti izaten zuten ke-

xaren bat ingelesa dela edo beste edozein eta ez ziren etortzen. Bestetik, txikienekin larribatetan aritzen gara.

### Orain zenbat haurrekin ari zarete lanean?

Hogei haur ditugu adinaren arabera saikatuak. Sei urtetatik hasi eta hamazazpi urte bitarteko haurrekin aritzen gara. Entrenatzeko hoberena, bi arreariz eta bi atzelariz osaturiko taldeak izatea litzatekeen arren, batzuetan sei edo zazpi haur ibiltzen dira.

### Eta neskekin zer gertatzen da?

Talde polita hasi zen xarean baina, Gipuzkoa mailan ez da beste inon xarean jokatzen eta txapelketarik ez dutenez, xa-

rea utzi eta palan jokatzen dute. Horrela beraien txapelketak dituzte.

### Ikasturte honetan lehen aldiz lortu duzue Iparraldekoekin txapelketa egitea?

Gure garaian ere egiten zen baina gero partida guztiak iparraldean jokatu behar izaten genituen, eta ni, esaterako, aspertu egin nintzen bueltara ibiltzeaz. Aldiz, Joxi oraindik ere astero joaten da. Urtero egin izan dugu txapelketa baina gure haurren artean soilik eta ikasturte honetan, berriz lortu dugu txapelketa iparraldekoekin batera egitea eta partiduak han izan ezik, hemen ere jokatzea. Haurrak gustura daude, eta lehen urtea



E. MAIZ

izanik, uste baino maila hobea eman dute. Esaterako, Unai Sarasola eta Julen Aizpuruak txapelantzi jantzi dute benjamin mailan. Txapelketak motibazioa piztu die gure haurrei. ◀

HEZKUNTZA ▶

**Hirukiden, DBH aurkezteko bilera izango da gaur**

Hirukide ikastetxean datoren ikasturterako izen-emaitea zabalik da dagoeneko. Hori dela eta, DBHrako matrikulazioari dagokionez, gaur 18:30ean Hirukideko Bigarren Hezkuntza aurkezteko hitzaldia izango da Hirukide Eskolapioetako areto nagusian. Bilera horretara, Hirukideko LHko 6. mailan dauden ikasleek gurasoak eta kanpoko gainontzeko familia guztiak joan daitezke.

KULTURA ▶

**Gaur, Tolosaldeko IV. Korrika batzordeko bilera**

Tolosaldeko IV. Korrika batzordea egingo dute bihar, 19:30ean. Hau, Tolosako Lizardi elkartearen egingo da, hau da, lehen AEK zegoen tokian. Honela, herritar guztiak gonbidatuta daude bilerara.

POLITIKA ▶

**Batzarrera deitu du gaurko, ezker abertzaleak**

Bihar, asteazkena, 19:30ean batzarra antolatu du ezker abertzaleak Kultur Etxean. Bertan egungo egoera politikoa eta maiatzeko udal hauteskundeak aztertuko dituzte. Hala, herritarrek gonbidatzen dituzte bileran parte hartzeko.

XAKEA ▶

**Tolosako eskoletako ikasleak nagusi dira Eskolartekoetan**

Txapelketako azken saioak igande honetan jokatu dituzte, Tolosako Kultur Etxean, 11:00etatik aurrera



Igandean, Kultur Etxean jokaturako norgehiagokaren irudiak. HITZA

ERREDAKZIOA

Joan den igandean Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketako hirugarren saioa jokatu zen Tolosako Kultur Etxean. Infantiletan gauzak ez dira batere aldatu eta Orixeko (Tolosa) Aimar Intxaurrendok jarraitzen

du lehen postuan. Atzetik ditu Anoetako Ikastolako Oihana Etxenike eta Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Alkorta. Alebinetan Jesusen Bihotzako Aitor Villenak zeraman alde handia galdu eta pega-pega eginda du orain Peio Errotako (Asteasu) Mikel Muguruza.

Atzetik, hirugarren postuan, Jesusen Bihotzako Eneko Maiz eta Muñagorri Ikastolako (Berastegi) Mattin Salbarredi daude berdinduta.

Benjaminetan aldaketa handiak egon dira. Danel Intxaurrendok (Samaniego - Tolosa) segitzen du lider baina Hirukideko (Tolosa) Eloy Iglesias eta Muñagorri Ikastolako Inhar Esnaola dira orain bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Nesken sailkapen berezian Jone Mujikak (Samaniego) nabarmen ihes egin du Ane Salbarredi (Muñagorri) hiru puntura utzi eta gero. Hirugarren Oihana Ugartemendiak jarraitzen du, Muñagorri Ikastolako baita ere.

Finala

Datorren igandean jokatu dituzte txapelketa honetako azken saioak. 11:00etatik aurrera Tolosako Kultur Etxean izango dira. Bestalde, larunbatean Gipuzkoako ligako beste txanda bat jokatu zuten. Tolosa-Ibarra taldeak 2,5-1,5 galdu zuen Andoaino Agustin de Leiza taldearen aurka. X. Mujikak irabazi eta S. Etxeberriak berdindu egin zuten.

ARETO FUTBOLA ▶

**Laskorain punturik lortu gabe itzuli da Bilbotik**

ESTI EZEIZA

Laskorainek GSI Bilboren filialari egin zion bisita Bilboko San Ignacion, joan den larunbatean eta baleko neurketa osatu arren, esku hutsik itzuli behar izan zuen Tolosara. Sailkapeneko hirugarren postuan dauden bilbotarrek kalitate tekniko eta taktiko handiko taldea osatzen dute eta bertan behera bota zuten horitxoaren ahalegina, 4-3 nagusituaz.

Lehen minutuetan bikain eutsi zioten Laskorainekoei etxeok erasoari. Honela, Telletxea beteranoak eta Zubillaga gazteak sinaturiko bigol etorri ziren, markagailuan nagusituaz.

Partidako gako ordea atsedendialdiaren aurretik eta ondoren gertatutakoan egon zen; gehien sufritzen ari zirenean bilbotarrek 1 eta 2koa sartu baitzuten lehendabizi eta aldagelatik atera bezain laister 2 eta 2koa.

Binakoaren ondoren, jokorekin dinamika ez zuen lehen zatian ikusitakoarekin zerikusirik izan. Bilbotarrek goruntz etorri ziren jokoen eta Telletxearen 2 eta 3koan ere ez zuen hau aldatu. Gainera, denbora gutxi behar izan zuten bilbotarrek berdinketa erdiesteko. Bukarant horitxoek hamar metro-tako jaurtiketa bat erratu zuten eta laugarrena bilbotarren aldera erori zen.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko storb. 47. beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: enia@inmoenia.com  
www.inmoenia.com

**Anoeta.** Duela gubiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera onean.  
**Anoeta.** Solkorre. 86 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Distribuzio ona.  
**Amezketak, Berastegi, Tolosa eta Zizurkil.** Hainbat etxe bifamiliarrak eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskuokak.

**Amezketak.** 90m<sup>2</sup>ko sartzeko moduan dagoen etxebizitza. 3 logela eta 2 bainugela.  
**Belauntza.** Etxe bifamiliarra salgai. Rustiko erara jarria. Ezin hobeto. 500m<sup>2</sup>ko lorategiarekin.  
**Berrobi.** Guztiz berritua. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz kanpoaldera. Parkinarekin.  
**Irura.** Labadero, 100 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailuarekin.  
**Irura.** Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.  
**Zizurkil.** Etxe abikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin. Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.  
**Ibarra.** San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

**Ibarra.** Plaza inguruan. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugelarekin; dena kanpoaldera. 180.300 euro.  
**Legorreta.** Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.  
**Villabona.** Kale berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Igogailuarekin. 324.600 euro.  
**Villabona.** Larrea. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Altua igogailuarekin. Guztiz berritua eta jantzia. 288.500 euro.  
**Tolosa.** Sputniks. Duplexa salgai. Berritua eta berokuntzarekin. Altua, igogailuarekin.  
**Tolosa.** Agintari. Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela. Kanpoaldera eta argitsua. 186.315 euro.  
**Tolosa.** San Esteban. Pisu altua igogailuarekin salgai. Kapritxura berritua.

**Tolosa.** Nafarroako ibilbidea. 3 logela eta 2 bainugelako pisua salgai. Berritua. Berokuntza eta igogailuarekin.  
**Tolosa.** Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.  
**Tolosa.** Beotibar. 36 m<sup>2</sup>. Altua, 150.000 euro.  
**Tolosa.** Amarotz. 3 logela, trasteleku eta berokuntzarekin. Pisu ederra salgai. Berritua.  
**Tolosa.** Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.  
**Tolosa.** Zumalakarregi. 98 m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin hobekak. Estreinatzeko. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Zumalakarregi. 92 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 bainugela. Guztiz berritua eta estreinatzeko. Garajearekin.  
**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 83 m<sup>2</sup>.

Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** Kondeaneko aldapa. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailuarekin.  
**Tolosa.** San Frantzisko. 50 m<sup>2</sup>ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.  
**Tolosa.** Pedro de Tolosa. 125 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.  
**Tolosa.** SAM. Iskineko etxe abikia salgai. Porbe eta guzti dauka.  
**Tolosa.** Erabat akondizionatutako 120m<sup>2</sup> dituen lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobea. Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua. Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazientzat.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

# Danena-Olaederrako 16 urte azpikoek «espero zutena baino postu baxuagoa» Espainiakoan

Laugarren postua lortu zuten Kluben Arteko Kopan; 18 urte azpikoak, bigarren

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederra halterofilia taldeak Espainiako Kluben arteko Kopan parte hartu berri du. 16 urte azpiko mailan laugarren postua lortu zuten eta 18 urte azpiko mailan bigarrenak izan ziren. Gazteagoen mailan, «esperokoa baino postu baxuagoa» lortu zutela azaldu du Batis Kortajarena taldeko prestatzaileak. 18 urte azpikoetan «ondo bete zuten lana», zehaztu du.

16 urte azpiko mailan Igor Sasiain, Iker Hernandez, Julen Intxausti, Jokin Urkizu, Adrian Sasiain eta Aritz Eriz pultsulariak hartu zuten parte. 18 urte azpikoetan, Jon Sasiain, Jon Ander Iriarte, Angel Martin, Mikel Quintana, Peter Cubillos eta Imanol Iturbe izan ziren pultsulariak. Kortajarena ez dago guztiz ziur, hala ere, 16 urte azpiko puntazioak ondo hartuta zegoenik. «Bigarren gelditu zirenekin alde handia ateratu zuten», dio prestatzaileak. «Emaitzak bidali behar dizkidate eta horren zain nago, puntazioak ondo dauden jakiteko. Batzue-



Espainiako Kluben Arteko Kopan parte hartu zuten pultsulariak eta prestatzaileak. HITZA

tan gertatzen da ez daudela ondo eginak eta gero postuak aldatzen dira».

Hala ere, 16 urte azpikoek «ez zuten esperokoa igo». Beraien marken azpitik aritu ziren. «Oso goiz aritu ziren eta urduri», dio Kortajarenak. Kontatu izan behar da klubaren arteko liga jokatu dutela eta horretan bi mailakoen bigarren

postua lortu zutela. Kopa liga-aren finala da eta egun batean zorteak ere parte hartzen du. 16 urte azpikoek «ez zuten zor-terik izan eta besteei ondo atera zitzaizana», zehazten du Kortajarenak.

Danena-Olaederrakoek hurrengo txapelketa larunbat honetan izango dute, Olaederra kirolegian bertan. Euskadiko

Txapelketa jokatu dute; alebin (1996 eta 1995 urtean jaio-takoak) eta infantil (1994 urtean jaio-takoak) mailakoek hartuko dute parte eta eskola mailako teknika modalitatean jokatu dute, hau da, pisurik altxatu gabe. Txapelketa 17:00-etan hasiko da eta baliagarria izango da Espainiako Txapelketarako.

ALKIZA ▶

## 20 orduko Photoshop ikastaroa

Photoshop ikastaroa antolatu dute Alkizan, martxoaren 14tik maiatzaren 16ra, asteazkenetan, 20:00etatik 22:00etara. 20 euro balio ditu eta izena Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean eman behar da.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

## Jesusen Bihotzan aurrematrikula epea zabalik

Jesusen Bihotza Ikastolak irekita du aurrematrikula epea martxoaren 9ra arte. Zentroko idazkaritza 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 18:00era dago irekita. Bi aukera daude ikastola eta bere zerbitzuak eza-gutzeko: Villabonako Txermi-nen gaur, 17:15ean, eta Zizurkilen bihar, 17:15ean.

ZIZURKIL ▶

## Aurrematrikula epea irekita Otaño eskolan

Pedro Mari Otaño Herri Eskolan matrikulazio kanpaina irekita dute martxoaren 9ra arte. Bulegoko ordutegia 09:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era dute.



## TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrak, 2007ko otsailaren 5ean, Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinarekin birgaitze-erreformarako proiektua egiteko eta idazteko lan osagarriak kontratazeko klausula administratiboa agiri onartu zuen.

**1.- Helburua:** Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinarekin birgaitze-erreformarako proiektua egiteko eta idazteko lan osagarriak.

- Eraisteko proiektua ( obrako goi zuzendaritza eta ertaina barne direla),
- Goi zuzendaritza teknikoak.
- Zuzendaritza tekniko ertaina,
- Seguratasun eta Osasun Azterketaren onarpen-aktak.
- Seguratasun eta Osasun koordinazioa,
- Jarduera-proiektua,
- Larraldi-plana,
- Telekomunikazio-proiektua,
- Eraikinarekin liburuak.

**2.- Litzitazioaren zenbatekoa:** 347.697,24 € (BEZa barne)

**3.- Exekuzio-epaia:**

- Eraisteko proiektua.- Hilabeteko epea, Proiektua adjudikatzen denetik kontatzen hasita,
- Goi zuzendaritza teknikoak.- Obrak irauten duena, 24 bat hilabete,
- Zuzendaritza tekniko ertaina.- Obrak irauten duena, 24 bat hilabete,
- Seguratasun eta Osasun Azterketaren onarpen-aktak.- 15 eguneko epea, enpresa esleipendunak
- Seguratasun eta Osasun Plana aurkezten duenetik kontatzen hasita,
- Seguratasun eta Osasun koordinazioa.- Obrak irauten duena, 24 bat hilabete,
- Jarduera-proiektua.- Hilabeteko epea, Proiektua adjudikatzen denetik kontatzen hasita,
- Larraldi-plana.- Obra amaierako ziurtagiriarekin batera aurkeztu behar da, Udalak eraikinarekin obra onarpena egin aurretik,
- Telekomunikazio-proiektua.- Hilabeteko epea, Proiektua adjudikatzen denetik kontatzen hasita,
- Eraikinarekin liburuak.- Obra amaierako ziurtagiriarekin batera aurkeztu behar da, Udalak eraikinarekin obra onarpena egin aurretik.

**4.- Espedientea ikusteko:** Tolosako Udaletxean, Hirigintza eta Obra Departamentuan: Plaza Zaharra 6b, Tel. 943 69 74 51

**5.- Behin-behineko fidantza:** 6.953 €

**6.- Behin betiko fidantza:** Adjudikazio-zenbatekoaren % 4

**7.- Eskaintzak egiteko tokia eta epea:** Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan: Plaza Zaharra, 6-B, 2007ko martxoaren 13a eguna arte eguerdiko (13:00) arte

Tolosan, 2007ko otsailaren 26an - ALKATEA

ANOETA ▶ POLITIKA

## Ezker abertzaleak ostiraleko lanuzteak «oso erantzun zabala» jaso zuela dio

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak «eskerrak eta zorionak» ematen dizkie Anoetako herritar, denda, taberna, komertzio eta bestelako entitateei ostiralean Etxerarek deitutako mobilizazioen aurrean «eman zuten erantzunagatik», ohar batean azaltzen duenez. Eguerdian deituriko ordubeteko lanuzteak «oso erantzun zabala» izan zuela diote. Bestetik, arratsaldean burutu zen elkarretaraztean 30 lagun inguru elkartu ziren.

Egun horretako mobilizazioak «aurrerapausu» bat izan dela eskubideen aldeko borrokan dio ezker abertzaleak eta



Anoetan ostiral arratsaldean egindako elkarretaraztea. HITZA

aurrerantzean ere «danean eta mobilizatzen jarraitzeko» deia luzatzen dute. Horixe da eragile politiko honen iritziz, «euskal

presoen bai euskal herritar orenen eskubideak errespetatuak izan daitezen bide bakarra».

ALEGIA ▶ EUSKARA

# Egaña eta Arzallus, Korrikaren aldeko bertso bazkarian

Martxoaren 10ean izango da Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolatutakoa eta dagoeneko txartelak salgai daude



**Txartelak salgai:**  
• Kultur Etxean  
• Herriko tabernetan  
(Txintxarri, Iskiñia, Jubilatunea, Hilario-berri)

**Martxoak 10**  
larunbata 14:30ean  
TXINTXARRI jatorria

Hau da bertso bazkaria iragartzeko erabiliko duten kartela. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Alegiko Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak martxoaren 10erako bertso bazkari bat antolatu du. Bazkari hau Alegiko Txintxarri jatetxean izango da, 14:30etik aurrera.

Egun horretan ariko diren bertsolariak Andoni Egaña eta Amets Arzallus izango dira, gaur egun bertsolaririk onenen artean dauden bertsolariak, hain zuzen ere.

Martxoan jakina da Korrika 15a izango dela, eta Tolosalde-tik aurrten ere igaroko dela: hori aprobetxatuz, bertso-bazkari hau Korrikari laguntzeko ere izango da. Bertsolarien saioa, berriz, bertso eskolak ordainduko du.

Bazkariko txartelak 25 euro balioko du eta Kultur Etxean eta herriko taberna hauetan izango da erosteko aukera: Txintxarri jatetxean, Ixkiñian, Hilario-Berrin eta Jubilatuean. Hauek erosteko epea ere zehaztu egin dute: martxoaren 7an izango da azken eguna. Jatetxeko kopurua mugatua izan-

**DATUAK ▶**

**Ekitaldia.** Bertso bazkaria, Korrikaren alde.  
**Antolatzailea.** Zazpi Astoren Gainean bertso eskola.  
**Eguna.** Martxoak 10.  
**Ordua.** 14:30ean.  
**Herria.** Alegia.  
**Tokia.** Txintxarri jatetxean.  
**Bertsolariak.** Andoni Egaña eta Amets Arzallus.  
**Prezioa.** 25 euro.  
**Txartelak salgai.** Jubilatuen tabernan, Kultur Etxean, Txintxarri, Iskiñian eta Hilario-Berrin.

koa, eta txorixoa besteen artean). Ondoren, ganba eta bakailao entsalada, txekor saheskia edo hegaluzea saltsan: hiru hauek aukeratzeko izango dira. Postrerako, berriz, flana izozkiarekin eta kafea izango dira.

Bazkari legea egin ondoren, bertsolarien saioari ekingo diote, Andoni Egañarekin eta Amets Arzallusekin. Korrikari eta euskarari laguntzeko modu berezi bezain dibertigarria izango da. Beraz, euskarari laguntza eman nahi izanez gero, eta normalizazioan pausua eman nahi izanez gero, bertso bazkaria ez da aukera txarra.

ALEGIA ▶

## Intxurrekoak berriro ere, garaile

Intxurre futbol taldekoak asteburu honetan ere sendo ibili dira, hiru garaipen lortu baitituzte: lurraldeko-koek Mariñoren aurka 3-2 irabazi zuten. Jubenilek, berriz, bi gol sartu zituzten Lasarte hutsean utzirik, eta kadeteek 4-0 garaitu zuten Urnietan.

**IKAZTEGIETA ▶**

## Posta elektronikoz komunikatzeko

Martxoan zehar Ikaztegieta KZgunean izango diren ikastaroak hauek izango dira: martxoaren 5ean 16:00etatik 20:00etara izango da bisita ordua, eta *Posta elektronikoz komunikatu* mintegia 17:00etatik 19:00etara izango da. Hurrengo, berriz, martxoaren 19an izango da.

**IBARRA ▶**

## Diru laguntzen epea bihar bukatzen da

Familia ugari titularrentzat eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko diru sarrerak dituztenentzat, Ibarako Udalak laguntza bereziak eskaini ditu. Diru laguntza hauek lortzeko izena emateko epea bihar amaitzen da. Informazio gehiago 09:00etatik 14:00etara udaletxean lor daiteke.

BIDEGOIAN ▶

## Konposta etxean egiteko 3. kanpaina martxan da

Izena emateko azken eguna bihar da, eta posta elektronikoz edo telefonoz egin daiteke

**ERREDAKZIOA**

Bidegoianen, etxean konposta egiteko aukera izango dute, baina izena emateko azken egunak gaur eta bihar izango dira.

Urola Erdialdeko Udala Elkar-atea Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Sailarekin batera abian jarri du etxean konposta egiteko hirugarren kanpaina. Horren helburua (norberak bere etxean sortutako materia organikoa konpostatu eta berrerabiltzea da).

Bertan parte hartzeko lorategi txiki bat edo baratza bat izan behar da, gero prozesu horren ondorioz lorturiko konposta bertan berrerabiltzeko, alegia. Kanpaina honetan parte hartu nahi dutenei konpostagailua, horren erabilpenerako ikastaroa eta liburuxka, eta aholkularitza zerbitzua emango zaie: sor daitezkeen zalantzak argitze-ko, bai telefonoz, eta baita posta elektronikoz ere informazioa lor dezakete, eta dohainik emango zaizkie.

Izena eman nahi dutenek Urola Erdialdeko Udala Elkartera zuzendu behar dira, edo 943 857319 telefonon zenbakira deituz, edo bestela, ueue@udal.gipuzkoa.net webgunean. Hone-tarako epea bihar, hilak 28, bukatuko da.

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA  
**PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**  
Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL  
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

**Komunikabide batek pertsona bat behar du asteburuetan argazkiak ateratzeko.**  
Interesatuak deitu  
661 678 817ra

**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**  
2-16 urte bitarteko hezkuntza  
Villabona eta Zizurkilgo ikastola  
• Euskalduna eta eleanitza • Kalitatezko Hezkuntza • Esperientziaduna  
943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
943 69 20 58 (Txermin auzoa • Villabona)  
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)  
billabona@ikastola.net

IBARRA ▶ GIZARTEA

# «Positibotzat» jo du Langostinok 2007ko lehen Moto Bira

San Bartolome plazan geratu ziren goizeko 09:00etan; gosalduta eta Lekunberrira abiatu ziren euria lagun zutela



Goizean elkartu eta motorrak ilaran utzita gosalduta egin zuten lehenik. HITZA

## ASIER IMAZ

Balantze positiboa egin dute Langostino Moto Kultur Elkarteko partaideek igandeko Moto Biraren inguruan. Eguraldi eskasa eduki zuten arren, uste baino motorzale gehiago elkartu ziren San Bartolome plazan; 18 moto eta 20 lagun.

Goizeko 09:00etan Ibarako plazan elkartu ziren. Gosalduta ondoren, motorrak martxan jarri eta Nafarroa aldera zuzen-

du zituzten euren gurpilak. Lekunberri, Leizor eta Goizuetaetik pasa ondoren, Gipuzkoan sartu ziren, Hernanitik barrena Ibarren amaitzeko 2007ko lehen Moto Bira.

Gosaria eta bazkaria barne, egun pasa polita egin ondoren balantzea egiteko garaia; «gustura» azaldu dira, eguraldia kontutan izanda ez baitzituzten horrenbeste motorzale espero. Hurrengo bira berriz, martxoan izango da. Langostino Moto

Elkartek euren ekitaldi guztietan bezala, aurrerantzean ere parte hartzeko deialdi zabalak egiten dute.

## MOTO BIRAK ▶

### DATAK

**Martxoak 25.** Moto Bira.

**Apirilak 29.** Moto Bira.

**Maiatzak 27** Sorpresa.

**Ekainak 30 eta Uztailak 1.**

V. Langostino Moto Festa.

JON IJURKO ▶ ETXERAT-EKO KIDEA



A.P./A.I.

## «Bilbo guztian zabaldu genuen gure oihua»

Ibartarrak Basurtoko ospitalean amaitu zuten jasotako kolpeen ondorioz

### A. IMAZ

Larunbatean Bilbon manifestaziora deitu zuten Euskal Preso Politikoen Kolektiboak. Etxeratek autobusak antolatu zituen gure eskualdean ere. Ertzaintzak ordea indarrez debekatu nahi izan zuten, ondorioz, zauritu ugari eta bi atxilotu suertatu ziren. Jon Ijurkok, Etxerateko kide ibartarrak, kolpeen ondorioz ospitalean amaitu zuten eguna. Eskualdeko zauritu bakarra ez zen izan ordea, Lizartzar bat eta Villabonako hainbat ere kolpatuen artean daude.

**Ibartatik irteetan ba al zenukiten manifestazioa legala ala ilegal zena?**

Ez genekien. Bidean gainera irratia entzuten joan ginen eta arratsaldeko 15:00etan oraindik ez zekiten ezer.

**Noiz kargatu zuten Ertzaintzak?**

Hasieran, 16:45ean, kolpeak egon ziren, baita kazetariren bati ere. Ondoren, *Amnistia*

eta *Autodeterminazioa* pankarta atera zuten. Orduan denetik egon zen. Lehenik pankarta kentzen saiatu ziren, indarkeriaz. Gero minutu bat genuela esan ziguten handik alde egiteko, eta segundo gutxira kargatu egin zuten. Niri ostiko bat eman zidaten, ondoren porrarekin buruan odol baso bat lehertuz. Ostikadak, porra eta bertatik bertara goma pilotaz tiroa. Gero altxatzea nahi zuten lurretik. Ez dakit posible nuen, baina ez nuen altxa nahi kolpe gogorragoak ez jasotzeko. Ondoren gainean oinez hasi zen ertzain bat; lepoa, besoa eta barrabilak zapalduz. Anbulantziari zioten pasatzen utzi.

**Etxerat-eko kide bezala, zer iritzi duzu?**

Jendearen erantzunaz oso harro. Sabin Etxera heldu nahi genuen, geure haserrea sortu zutenak han baitzuten burua. Bilbo guztira zabaldu genuen beraz gure eskubideen aldeko protesta. ◀

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ AIZKORA

# Rekondori eta Eratsuni txapelak ihes egin die, gutxiatik

Azkeneko lanean erabaki zen finala, lehenengo 5 probak eta gero Rekondo eta Eratsun irabazten baitzihoazten



Jon Rekondo, finalurrekoa baino lehen. N. GARZIA

## ERREDAKZIOA

Larunbateko Urrezko Aizkolari Binakako Txapelketan ez zen ezustekorik izan emaitzei dagokionez. Gazteetan, Aldape eta Atutxa nagusitu ziren eta helduetan, berriz, Floren Nazabal eta Juanjo Lopez.

23 urtetik beherako finalean irabazleak faboritoak izan arren, Rekondo eta Eratsun gogor aritu ziren, eta azkeneko proba arte ez zen argi ikusi irabazleak eta galtzaileak zein izanen ziren, 44 segundotako aldea baitzuten nafarrek. Azken enborra erabakiorra izan zen, Eratsuni enborra mozteko gutxi falta zitzaionean bizkaitarrek aurrea hartu baitzuten. Jon Rekondok azaldu duenez, «ni nahiko nekaturta negoen. Ebakia ez nuen oso ongi egin eta nire laguna galdu egin zen». Txapela hain gertu izan ondoren, azkeneko proba eta gero hau galtzea ez da, ordea, batere xamurra. «Azkeneko lana ongi egin izan bagenu, irabazi egingo genuke. Horrexegatik, amaitu ondoren ez nintzen pozik gelditu. Egurra leheritu zitzaigunean gu gindoazen irabazten eta galdu ondoren haserretu egin nin-

tzan». Irabazle eta galtzaileen arteko aldea hain txikia izateak ere zerikusirik izan zuen leitzararren amorrazioan. «Nahiago nukeen, 10 segundo kendu ordez, minutu bat kendu izan baligute».

Lehenengo proban 45 ontzako enborra ahalik eta kolpe gutxienetan moztu beharrekoa zen eta 35 kolpetan moztu zuten bi bikoteek. Bigarren proban 45 ontzako 2 enbor erlojuz kontra moztu behar izan zituzten. Atutxa eta Aldapek 1,38ko denbora egin zuten, eta Rekondo eta Eratsunek, berriz, 1,45 denboran erdibitu zuten.

Zutik kana-erdiko enbor bat moztea izan zen hirugarren lana, eta txanda honetan Rekondo eta Eratsun hobeak izan ziren, 2,16ko denboran amaitu baitzuten haien lana. Bizkaitarrek, berriz, 3,05 behar izan zituzten.

Laugarren lanan, oinbikoa txanda librean erdibitzeko 2,53ko denbora behar izan zuten Atutxak eta Aldapek. Rekondok eta Eratsunek 3,14ko denboran bukatu zuten.

Bosgarren proban gauzak oraindik ez zeuden batere argi, are gutxiago Rekondok eta Eratsunek proba hau gainditu

## NORGEHIAGOKA

23 urtetik beherako finalean irabazleak faboritoak izan arren, Rekondo eta Eratsun gogor aritu ziren

## TXAPELA

Txapela hain gertu izan ondoren, azkeneko proba eta gero hau galtzea ez da, ordea, batere xamurra

## TENTSIOA

Azkeneko proba arte ez zen argi ikusi irabazleak eta galtzaileak zeintzuk izango ziren.

zutela ikusi eta gero, izan ere, 36 ontzako enbor bat zutik eta bestea etzanda erdibitu behar zituzten proban nafarrek 1,26 minutu behar izan zituzten. Atutxak eta Aldapek, berriz, 1,44.

Gauzak honela azkeneko proba iritsi zen eta Aldapek eta Atutxak zortea lagun izan zuten, Eratsunek enborra ia moztuta zuela hautsi egin baitzizaion, eta denbora dezente galdu zuten.

Helduen txapelketari dagokionez, norgehiagoka parekatu xamar joan zen, bosgarren lanean erabaki baitzen finala. Azkenean faboritoek irabazi zuten, Floren Nazabalek eta Juanjo Lopezek.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Zer irudituzaitzazu aurtengo Inauteriak? Lehen bezain beste imajinazio ba al du jendeak? Zer bota duzu faltan eta zer soberan aurtengo Inauterietan? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia.

LEITZA ▶ PILOTA

## Finala urrunago Ruiz eta Bengoetxea VI.arentzat

Galdutako partida eta gero, gelditzen diren bi norgehiagokak irabazi beharko dituzte

## ERREDAKZIOA

Ruben Beloki eta Asier Olaizola finalerdietako ligaxkak lehenengo puntua eskuratu zuten larunbatean eta partida hasieratik menderatu zuten, 22-11 emaitza lortuz.

Partidaren hasieratik Beloki eta Olaizola I.ak aurrea hartu zieten Bengoetxea VI.a eta Belokiri. Goizuetarrak 3 tanto eder lortu zituen, 5-3koa leitzararren aurka dejada aunitz egin ondoren, 15-8koa.

Apustuak hasiera batean bikote urdinaren alde aterabaziren ere, Belokik Ruiz atzealdean behin baino gehiagotan estuasunean jarri zuen, eta presio honi esker irabazi zuten gorrixkek.

Larunbateko norgehiagokan beharbada aukera gutxien izan zituena Bengoetxea VI.a izan zen, finalerdietako azkeneko norgehiagokan gertatu ez bezala (Martinez Irujo eta Gofii III.aren aurkako partidaren), ez baitzuen apenas, aurkariaren jokoaren ondorioz, errematean sartzeko aukerarik izan. Honela, Olaizola I.ak eta Belokik Ruizengan ezarri zuten partidako presio guztia, baina hala ere leitzarrek tanto politik ere lortu zuten, 19-10koa bezala.

Larunbateko partida eta gero finalera iritsi nahi badute, Ruiz eta Bengoetxea VI.arentzat ezinbestekoa izanen da ligaxkako beste bi norgehiagokak irabaztea.

LEITZA ▶ POLITIKA



## Amaiursarea ekimenaren aurkezpena, zineman

**Erredakzioa** ▶ Igandean Leitzaldeko ezker abertzaleak deituta, Amaiursarea ekimenaren aurkezpena egin zuten Leitzako zineman. Ezker abertzalearen proposamen berri hau aurkezteko Fernando Barrena eta Marian Zestau izan ziren bertan. Honetaz gain, Leitzaldean ezker abertzaleak azken 30 urteetan buruturiko borroka ere omendu zuten. N. LIZARTZA

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Harreragilea.** Udalexeetarako. 943 444866

**Gidaria.** Erakunde publikoetan lan egiteko. 943 444866.

## SALGAI

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62

**Autoa.** BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000

kilometro liburuarekin. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuta daudenak deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 41 43.

## ALOKAIRUA

**Pisua.** Lekunberrin 60 m ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukialdea eta 2 logela. Interesatuta daudenak ondorengo telefono zenbakira dei dezatela: 649 20 14 60.

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Bizi nahi jubilatuta elkartekak irteera antolatu du Bilbora marboaren 10erako: Montenegro jatekxan bazkaria, zozketa eta dantzaldia.

**Tolosa.** Oitoiz jardunaldiak izango dira larunbatetan 10:30etik 11:45era Santa Maria parrokiaren Garizuma ospatzeko, 24ean euskaraz eta 3an gaztelaniaz. Pastoral agenteentzat, eliztarrentzat eta laguntzaileentzat.

**Tolosa.** Hirukide ikastetxeak DBHa aurkezteko hitzaldia antolatu du 6. mailako ikasleen gurasoentzat Eskolapioetan 18:30ean. Izen-ematea, Kultur Etxean, 943 670383 zenbakian edo [gazteria@tolosakoudala.net](mailto:gazteria@tolosakoudala.net) helbidean.

**Tolosa.** Saharako errepublikaren sorreraren 31. urtemugan, Udalak hango bandera jarriko du udalekxan eta 12:00etan Bir Leihu herriarekiko anaieratze plaka jarriko du Emeterio Arrese plazan.

**Tolosa.** Oargi elkarteak Gavarniera irteera antolatu du marboaren 2, 3 eta 4an. Informazioa 637 830380 telefono zenbakian.

**Villabona.** Fleming ikastetxeak bere eskaintza eta zerbitzuei buruzko bideoa eta hitzaldia eskainiko die gurasoei Arroako zentroan 16:30ean eta 18:00etan.

**Villabona.** Jesusen Bihotza Ikastola ezagutu eta haren zerbitzuei buruzko informazio zabalba jasotzeko aukera, Txerminen 17:15ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur Irurtzun.** Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
**Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.  
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Azken inauteri doinuak

**TOLOSA ▶** Eduardo Mocoroa Udal Musika Eskolako musikariek Piñata Igandean atera ziren Alde Zaharreko kaleetan Brasilgo eta Kubako doinuak joz

**ERREDAKZIOA**

Inauterizale asko dagoeneko 2008ko Inauterietan pentsatzen dago. Beste batzuk ajearekin daude oraindik. Eta beste batzuk, aldiz, Inauteri hauek erabat igarotzeko penarekin daude. Nostalgia puntu honi aurre egiteko-edo Piñata igandea ospatu zuten Tolosan herenegun.

Euriak busti zuen egun honetan, hirugarren urtez, Tolosako Eduardo Mocoroa Udal Musika Eskolako ikasle talde bat konpartsa batean parte hartuaz, Alde Zaharreko kaleetara atera zen, musika doinuak herritarrei barreiatzeko asmoz. 11:30ean abiatu ziren, hiru rogitamar ikasle inguru eta eguraldi traketsari aurre eginenez Brasilgo eta Kubako musika jo zituzten.

Ikasle hauen artean, flauta, oboea, klarineta, saxoa, tronpa, bombardino, tronpeta, tronboi eta tuba-joleak zeuden. «Ilusio handiz» hilabete askotan lan egin ondoren jende aurrean azaldu ziren.

Igande berezi bat izan zen musikarientzat. Inauterietan euren azken arnasa eman dute. Datorren urtera arte!



Euriak ez zuen irteera zapuztu eta musika doinuak nagusitu ziren Alde Zaharrean. NEREA LIZARTZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Naroa Goñi Garmendia.  
 Zure 4. urtebetetzean 4 muzu potolo maite zaitugunen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Ane Nogales (Ibarra).  
 Gaur 5 urte. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

gure etxean  
**euskara**  
 gure etxean  
**berria**

**Egin zaitez harpidedun**

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

**Orain eskaintza berezia**  
 Otsailaren 28a baino lehen harpidedun\* gero,  
**oparia zuretzat**

**2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA**  
 zuk aukeratzin duzun hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA <b>LARRE GAIN</b> 943 553 896 HERNANI	GIPUZKOA <b>OTSUA-ENEA</b> 943 956 894 HERNANI	BEIZKARIA <b>IBARRA</b> 946 731 100 ZORRITZA
ARABA <b>ITURRIETA</b> 945 445 385 ARABAKO	NAFARRA <b>MARTITXONEA</b> 948 604 607 ALDIZ	

**Deitu ORAIN!! 943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

\*Urte osoan eguneroko harpidedun izan behar du